

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

535

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, Euskal Estatistika Erakundeko (Eustat) zuzendari nagusiarena. Honen bidez, prestakuntzarako eta ikerketarako beketako bat adjudikatzen da estatistika-produkzio ofizialen estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean.

Eustateko zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 12ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 220. zk., 2019ko azaroaren 19koa), prestakuntzarako eta ikerketarako bi beketarako deialdia egin zen, estatistika-produkzio ofizialen estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean.

Dagokion prozedura egin ondoren, Eustateko zuzendari nagusiak ebazpena eman zuen 2020ko uztailaren 16an (EHAA, 169. zk., 2020ko abuztuaren 28koa), prestakuntzarako bi beketarako Iñigo Portillo Pampin jaunari eta Ander Iparragirre Garcia jaunari emateko. Era berean, deialdi horretako X 4) oinarriarekin bat etorritik, eta adjudikaziodunek uko egiteagatik edo beste edozein gertakariengatik gorabeherak aurreikuste aldera, epaimahaiak ordezkari bekadunak izendatzeko proposamena egin zuen.

2020ko abenduaren 31n, Iñigo Portillo Pampin jaunak bere beketari uko egiteko erabakia jakinarazi zion Eustateko Zuzendaritza Nagusiari, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Hori dela eta, ordezkari bekadunak proposatu zen; lehenengo ordezkariak uko egin zion baina bigarrenak, Matías Ledesma Sereno jaunak, onartu egin zuen.

Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 25eko 12/2000 Dekretuaren 4. artikulua ikusita, eta Eustateko zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 12ko Ebazpenean aurreikusten den deialdiaren X.4) oinarrian jasotakoarekin bat etorritik (ebazpen horren bidez, prestakuntzarako eta ikerketarako bi beketarako deialdia egin zen estatistika-produkzio ofizialen estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean), honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Estatistika-produkzio ofizialen estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean prestakuntzarako eta ikerketarako beketak Matías Ledesma Sereno jaunari ematea, Iñigo Portillo Pampin jaunaren ordezkari, 2021eko otsailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako.

Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Eustateko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 21a.

EUSTATEko zuzendaria,
JOSU MIRENA IRADI ARRIETA.